3.AKTA
2019/03/01

HIRUGARREN AKTEA

ZUZENDARITZA BATZORDEA

ORGANOA: Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordea

BILERA ZENBAKIA: 3

EGUNA: 2019/03/01

HASIERA-ORDUA: 8:00

AMAIERA-ORDUA: 8:25

TOKIA: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzar Gela

BATZAR MOTA: Ez Ohizkoa

BERTARATU DIRANAK:

Presidentea:	Idurre Bideguren Gabantxo
Presidente eragilea	Benito Ibarrolaza Munitiz
Zuzendaria	J.Ramon Alberdi Asteinza
Batzordekideak	Amaia Elorza Elortegi
	Juan Karlos Agirre Santa Maria
	Idoia Platas Arenaza
	Ziortza Irastorza Muruaga
	Aritz Abaroa Cantuariense
Idazkaria	Jurdana Uriarte Lejarraga
Idazkari Laguntzailea	Amaia Gracia Aristegi

BERTARATU EZ DIRANAK:

Batzordekideak:	Aingeru Astui Zarraga
	Alazne Zumeta Garro
	Xabier Ortuzar Butron

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua. Areilza 4 - 48370 Bermeo
Tel.: 94 617 9160 - Faxa: 94 688 20 97 - gizarteongizatea@bermeo.org / www.bermeo.org

1. 2019. URTEKO 2. AKTA ONARTZEA

2019. urteko 2.en akta aho batez onartu dute batzarkideek.

2. GAI ZERRENDAKO PUNTUEN INGURUAN INTERES PERTSONALAK EDO FAMILIAKOAK IZATEA ADIERAZTEA

Gai zerrendako puntuen inguruan batzordekideek interes pertsonalik edo familiakorik ez dute.

3. ZAHARREN EGOITZAKO ARRETA ZUZENEKO ZERRBITZUAN GERATUKO DIREN HUTSUNEAK BETETZEKO ZENBAIT KONTRATU HOBETZEA ONARTZEA.

Idoia Platas andereak esan du ez dutela irizpideak argi ikusten, baina langileen hobekuntzen alde daudela.

J.Ramon Alberdi Zuzendariak 3 langile gehiago %100eko jardunaldira pasatzeak langile finkoen aldarrikapen historikoa izan dela esan du eta %100ean dauden guztiei, txandatan antolatzeko aukerak handitzen zaiela eta esan du aukera horiek aztertzen hasiko direla.

Aritz Abaroa jaunak, proposatutako helburua ondo ikusten dutela esan du, baina antzinatasuna edo langile mugagabe ez finkoek, aldi baterako langileekin konparatuz, dituzten eskubide desberdintasunak eta honekin langileen eskubideak urratsen direnaren zalantza azaldu du.

Juan Karlos Agirre jaunak adierazi du langileen eskubideak ez direla urratzen, langileak %100era egotea sindikatuen aldarrikapenetariko bat dela eta egoera aprobetxatu behar dela.

Xedea

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko arreta zuzeneko zerbitzuan geratuko diren hutsuneak betetzea. Kontratuak hobetzea.

Aurrekariak

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua. Areilza 4 - 48370 Bermeo
Tel.: 94 617 9160 - Faxa: 94 688 20 97 - gizarteongizatea@bermeo.org / www.bermeo.org

Lehenengoa: GOUPeko Arreta zuzeneko langile bik euren lanpostuak utziko dituzte martxoaren 4an eta hutsune horrek betzeko, langile batzuen lanaldiak handitzeko proposamen egin zuen arreta zuzeneko arduradunak 2019ko urtarrilaren 31an.

Bigarrena: Zentzu berean, 2019ko urtarrilaren 31n, GOUPeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Teknikariak, aipatutako hutsuneak betetzeko langileen lanaldiak handitzeko proposamena egin zuen.

Hirugarrena: 2019ko otsailaren 25ean, Langileria Teknikariak txosten teknikoa egin zuen, proposatzen zen lanaldi handitzea lan-baldintzen funtsezko moldaketa legez izendatuz eta aldaketa egiteko lege xedapenak aitatuz.

Laugarrena: 2019ko otsailaren 27an Bermeoko Udaleko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen 2/2015 EDLren 72. Artikuluaren arabera, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak bere giza baliabideak kudeatzeko autonomia du eta enpresa moduan lan antolatzeko ahalmena du.

Bigarrena: Lanpoltsak kudeatzeko Araudiaren 17.artikuluaren arabera, aukera dago lanaldiak %100era arte handitzeko.

Hirugarrena: Kasu honetan eragiten diren lanpostuak Lanpostuen Zerrendan sortuta daude, dagozkien zuzkidurekaz, eta langile eta Lanpostuen arteko identifikazioa eginda dago.

Laugarrena: 2/2015 EDLren 12. artikuluaren arabera, lanaldi partzialdun kontratuak, lanaldi osoko kontratu bilakatzea, kontratuaren berriztatze bat suposatzen du eta, ondorioz, langilearen adostasuna beharrezkoa da.

Bosgarrena: Lanaldi partzialdun kontratuak handitzeko, partzialtasuna mantenduta, ez litzateke kontratuaren berriztatzea izango, eta 2/2015 EDLren 41. artikuluak xedatutako lan baldintzen funtsezko aldaketa izango litzateke.

Baina kontutan eukita funtsezko aldaketa hori EULEN-eko langileak hartzeko betebeharren finkatutako baldintzen kontra joan litzatekeela eta, horrek, arazoak ekarri ditzake, lanaldi partzialagaz geratuko litzateke langilearen jardunaldi handitzea bere borondatez egitea beharrezko ikusten da.

Batzorde Zuzentzaileak GEHIENGO SOILEZ (Idurren Bideguren, Benito Ibarrolaza, Amaia Elorza eta Juan Karlos Agirreren aldeko botoekin eta Idoia Platas, Ziortza Irastorza eta Aritz Abaroa jaun andereen abstentzioekin) erabaki du:

Lehenengoa: 2019ko urtarrilaren 31ko txosten teknikoak proposatutakoaren araberako kontratuen jardunaldiak handitzea, beti be langileak ados badaude, eta egokiak diren kontratu aldaketak egitea.

Bigarrena: Proposatutako kontratuen jardunaldi handitzeak egiteko langileen kontrako borondatea balego, lan poltsa jarraituz egokiak diren kontratuak egitea.

Hirugarrena: Proposatutako moldaketak Lanpostuen Zerrendan aurreikusitako lanpostu bete gabeei adskribatzea

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat emon dau batzarra goiburukoan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidautakoa eta erabagitakoa jasota geratu daiten, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dodanak, horren fede emoten dot, presidente eragilearen oneretxiagaz.

Oneretxia

PRESIDENTE ERAGILEA
Benito Ibarrolaza Munitiz

IDAZKARI NAGUSIA
Jurdana Uriarte Lejarraga

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua. Areilza 4 - 48370 Bermeo
Tel.: 94 617 9160 - Faxa: 94 688 20 97 - gizarteongizatea@bermeo.org / www.bermeo.org